

Ozono geruzako zuloa: argi gorriak piztuta berriz ere

ORAIN HIRU ASTE iragarri genuena ez da bete. Ozono-mailaren jaitsiera normala izango zela zirudien arren, asteotan aspaldi ikusi gabeko datuak neurtu dituzte ikerlariek. Beheko grafikoan urriaren 2ra arteko datuak erakusten dira:

Ikusten denez, irailaren erdira arte ozono geruzako zuloaren bilakabidea normalizat har dezakegu, baina hortik aurrera era harrigarrian zabaldu da haren hedadura.

Jada ziurta dezakegu aurten zuloaren tamaina handienetakoa izango dela neurketak egiten direnez geroztik. Horrek hankaz gora jartzen du azken urteotako baikortasuna.

Faktore berriek azal dezakete ozono geruzaren ahultzea? Berotegi-gasek, kutsatzaileek, eta abarrek ozonoaren desagertpenaren bigarren fasearen erantzuleak izan daitezke? ■

Ikerlari izateko zailtasunak

Naiara Perurena Aizkorbe leitzar ikerlari gaztearekin egindako elkarrizketa plazaratu du Elhuyarrek, zientzia.eus webgunean. Besteak beste, Perurenak dio azken urteotako diru-laguntzen murrizketek asko zaildu dutela ikerkuntza lana.

ttiki.com/341913
(Euskaraz)

Bizi estralurtarra aurkitzeko teknologia garatzen


Argentinari ikerlari talde batek sentzore bereziak garatu ditu mikrobio estralurtarrak detektatzeko, *Astrobiology* aldizkarian argitaratu denez. Batez ere argia behar duten mikrobioak atzeman nahi dituzte, aurreikusten baitute bizi estralurtarrak ezaguri hori edukiko duela.

ttiki.com/341914
(Gaztelaniaz)

Edertasuna begiratzen duenaren begien arabera da

Harvard Unibertsitateko (AEB) ikerlarien arabera, aurpegi baten edertasunaren pertzepzioa pertsona bakoitzak duen esperientzia-multzoaren arabera da izaten da gehienetan, unibertsaltzat jo daitezkeen parametro batzuk egon badauden arren. Ondorio horretara heltzeko, 35.000 boluntarioekin egin zuten azterketa. *Current Biology* aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.

ttiki.com/341915
(Gaztelaniaz)



P. Newman (NASA), E. Nash (SSAI), R. McPeters (NASA), S. Pawson (NASA)

Plastikozko 5 «uharte» erraldoi daude munduko ozeanoetan



1950. URTEAN munduan sortutako hondakinetatik, 1,5 milioi tona plastikoa ziren. 2020an 300 milioi tona baino gehiago izango dira. Horren zati bat birziklatzen saiatuko bagara ere, gehiena itsasora joango da.

Une honetan 300 milioi tona plastiko dago itsasoan, bost gune nagusitan. Ozeano Barean bi gune ditugu: bata, zabalena, 3,43 milioi kilometro koadroko azalera –India baino handixeago– eta 30 metroko sakonera duena, AEBen parean; bestea, Txilerenean. Ozeano Atlantikoan beste bi gune daude, Karibetik Iberiar penintsularako bide erdian eta Brasiletik Hegoafrikarakoan. Bosgarren gune handia Ozeano Indiarrean

dago, Madagaskar eta Australia artean.

Plastiko hori pixkanaka gure ekosistemaren zati bihurtzen ari da. Kalkulatu da une honetan arrain eta itsaskien %30 inguruk plastiko arrastoak dituztela gorputzean. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16